

# Kazetaritza egiten dugu: profesionala, librea

PUBLIZTATEA

2013ko otsailaren 27a | Azken eguneraketa 10:46

EGUNEKOAK

ASTEKARIA

BLOGAK

MULTIMEDIA

Bilatu ARGIA-n

## Argia Ingurumena

- Politika
- Nazioartea
- Gizartea
- Ekonomia
- Ingurumena**
- Euskara
- Kultura
- Historia
- Zientzia
- Iritzia

Ingurumena Eredu ekologikoak

Gipuzkoako politika Bildu Gipuzkoa

INPRIMATU IRUZKINAK

### Gipuzkoako natur talde eta ekologistak haserre Aldundiarekin



Pello Zubiria Kamino

Tweet 1

Follow @pellozubiria

Gomendatu 0

1 0

2013-02-27



Naturzaleak atzo Gipuzkoako Aldundiaren aurrean (argazkia: Juan Carlos Ruiz /Argazki Press).

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean protesta egin dutela natur talde eta ekologistek 2013ko urrian? Sinesgaitza, ikusirik hondakinen errausketaren edo Pasaiko kanpoko portua bezalako azpiegitura erraldoiei aurre egiteko zer buruhauste darabilzkien Diputazioak. Baina posible da, antza, arazorik zailena askatzea lortzen ari dena korapilorik errazenean katramilaturik gelditzea. Dena dela, oharrak aspaldi zeuden emanak.

Berdeak, Ekologistak Martxan, Eguzki, Erkaxo Azpeitiko Natur Taldea, Haritzalde, Itsas Enara Ornitologia Elkarte, Landarlan Natur Elkarte, Mutriku Natur Taldea, Okil Beltzak Natur Taldea, Ondarroa 12 milia, Arkamurka Natur Elkarte, Herrio Natur Taldea, Zumaia Natur Taldea,

Katamarua Zestoako Natur Taldea, Ugatza Ornitologia Elkarte eta Osina Natur Taldea. Ez bat eta bi, denetara hamasei talde kexatu dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarreraz, Donostiako jauregiko atarian. Banderola mikatza erakutsi dute: Gipuzkoako armariaren hiru haginetatik bi motozerrak ebakirik, **Berria** eta **Diario Vasco**ko kroniketan (honetan bideo eta guzti) ikus daitekeenez.

Naturazale eta ekologistok iragarri dute bertan behera uzten dutela Aldundiarekin batera Gipuzkoako landa eremuan inguru naturala eta bioaniztasuna zaindu edota berreskuratzeko kudeaketa-planak mahaian parte hartzea, eta salatu dute Bildurekin Aldundiak nekazaritza eta landa eremuen kudeaketan aurretik EAJk eta Hamaikabatek eramandako politika bera darabilela. Departamendu hori Eusko Alkartasunak kudeatzen du.

Egun berean **Berrian** argitaratutako "Natur kontserbazioa Gipuzkoan" iritzi artikuluan Aitziber Sarobe Egiguren biologoak izen-abizenak jarri dizkio naturazaleen eta ekologisten ezinegonaren sustraian dagoenari: Bilduk hauteskundeak irabazitakoan Gipuzkoarako agindutako aldaketa pozik ikusi ondoan, dio Sarobek, "aldaketa hori ez zen ez sail eta ezta programa guztietan gertatu. Uda pasatu zain egon behar izan genuen Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa Departamentuko Mendietako eta Natura Inguruneke Zuzendari nagusiaren izendapena ikusteko: azken izendapena izan zen Julian Unanue Bereciartuarena. Ordurako zantzu txarrak hartzen hasiak ginen, baina ezin uka izendapen hori sorpresaz hartu genuenik. Izan ere, Gipuzkoako natur kontserbazioaren ardura duen zuzendariak egurraren negozioari lotutako interes pribatuak ditu".

Talde horiek aspalditik, pankartarekin plazan azaldu baino askoz lehenagotik, ari ziren kritikatzeko publikoki Diputazioa landa eremuan daramatzan ekintzetatik. Nabarmena izan zen intsinis pinuaren Prozesionarioa (*Thaumetopoea pityocampa*) izeneko arra desagertarazteko Aldundiak egindako fumigazioak sortutako ezinegona. Aurrekari hori biharkoan kontatuko dugu.




2357

2356


2358 zenbakia. 2013ko otsailaren 24a

Azkena || Hemeroteka

Babeslea



4.066 pertsonak Argia atsegin dute.



Jaso egunero email bakarrean eguneko 10 albisteak. Eta astean behin, astekaria. **Dohainik.**

Idatzi e-posta albiste buletiri

### Ale berean...



Txoritxoa ekaitzaren erdian



Kartzelak Mendekuaren garaipena

Piztu ezazu ARGIA egin klik!

Gomendatu 0

INPRIMATU LAGUN BATI BIDALI

## Iruzkina idatzi


Beste norbaitek idazten badu abisua ematea nahi duzu?

**BIDALI**



**Mari Luz Esteban**

"Egoera berrietara egokitzeko gaitasun handia erakutsi du feminismoak"



**Emakumeak korrika**

Kalean ugari, lehiaketan oraindik urri



**Kultur maratila**

Euskal arte eszenikoaren hauspoa Leioan



**Euskaldunon egunkaria**

Ateak itxita, zauriak irekita

**Argia** HARPIDETZAK

Kazetaritza independentea eta profesionala egiten dugu, euskaraz eta euskaldunontzat.

**HARPIDETU ORAIN**



TITULARRAK E-POSTAN JASO NAHI?

Idatzi helbide elektronikoa

**ALTA EMAN**



EGUNEKOA | POLITIKA | NAZIOARTEA | GIZARTEA | KULTURA | EUSKARA | EKONOMIA | ASTEKARIA | LARRUN | MULTIMEDIA

Nor gara | Kontaktua | Mapa | Lege oharra | RSS jarioa | Iragarri | Harpidetu



1998 - 2013 KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.L.  
ARGIAko edukia kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



**ametzagaiña**  
taldea

**Argia**

**aniza**

**iametza**  
interaktiboa

**ADUR** software productions

